



berriak

OSAKIDETZA

2016/04/15

KATALUNIAN PRESKRIPZIOARI BAI

HEMEN ZERGATIK EZ?

Katalunian erizainen preskripzioa aurreikusten duen Dekretu propioa ateratzea erabaki dute, Kataluniako lan-protokoloei moldatutakoa. Eusko Jaurlaritzak, aldiz, ez du inolako urratsik ematen eta Osakidetza erizain guztiak babesgabezia egoeran mantentzen ditu.

ELAk erizainen preskripzioaren gaiak eztanda egin zuenean Eusko Jaurlaritzari hiruko mahai bat sortzea eskatu zion, medikuen eta erizainen elkargo eta sindikatuen partaidetzarekin. Bilera hauen helburua lanbide bakoitzaren eremu autonomo eta kolaboratiboa ondo argitzea zen, erizainen egiteko autonomoen barruan preskripzio eremua barneratuz.

Gure asmoa lan-protokoloak adostea zen, ondoren hemen Madrileko erizainen preskripzioaren araudiari aurre egingo dion Dekretu bat garatzeko.

Eusko Jaurlaritzak eta erizainen elkargoak bilera egiteari uko egin zioten eta Jaurlaritzak Dekretu propio bat ateratzeari uko egin dio, legezkoa ez omen delako.

Bada jadanik Andaluzian Dekretu propioa dute eta Katalunian Dekretu bat garatzea adostu dute. Han posible dena zergatik ezin da hemen?

Bien bitartean Osakidetza erizainek legearen babesik gabe lan egiten jarraitzen dute. Eta Osakidetza erantzukizun zibileko polizari buruz gezurretan jarraitzen du.

ELAk langileei antolakuntzarako dei egiten die, zerbitzu eta lantoki bakoitzean legearen babesarekin lan egiteko protokoloak adostera animatzen zaituztegu. Ez hartu erabakiak bakarrik, borrokatzeko antolatu! ELAk bilera horiek antolatzeko laguntza emango dizue.

Era berean, egoera salatzeko mobilizazioak burutzera animatzen zaituztegu.



ELA
EUSKAL SINDIKATUA